

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

MODERNaren patronatuak osasunean, hezkuntzan eta nekazaritza-industrian oinarritutako 2013ko kudeaketa-plana onartu du

Barcina Lehendakaria izan da bilkuraren buru, eta bertan datorren urteko aurrekontua ere onartu da

Viernes, 30 de noviembre de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina aste honetan Nafarroako Unibertsitatean egin den MODERNA Fundazioaren patronatuko bilkuraren buru izan da.

Patronatuak fundazioaren datorren urterako jarduerak plana onartu du. Plan horrek proposatzen du bere lana lankidetzaren proiektuetara bideratzea, "Navarra Health"

osasuneko "metacluster"-ean oinarrituz, nekazaritzako elikaduraren sektorean, bai eta hezkuntzaren sustraia, talentua eta giza kapitala sendotzea ere.

Gainera, patronatuak fundazioaren datorren urterako aurrekontua onartu du, 748.800 eurokoa, eta kopuru horretatik Nafarroako Gobernuak 548.000 jarriko du. Gainerako % 27a ekarpen pribatuekin eta Europar Batasuneko proiektuekin finantzatuko da.

Zehazki, 2013ko datorren urteko helburua MODERNaren klusterrei bultzada ematea da, ekonomia berdearen, osasun-ekonomiaren eta talentuaren ekonomiaren arloen baitan bildutakoak. Hamabi kluster horietan salmenta-koaderno bat egingo da elkarrekin, eta horrek Nafarroa kanpoan sustatzen lagunduko du, bai eta enpresen artean konfiantza-loturak sortzen ere, beharrezkoak direnak elkarlanerako proiektuak abiatzeko.

Lehenetsiko den proiektuetako bat "Navarra Health" izango da, eta haren helburua da Foru Komunitatea nazioartean erreferentzi bihurtu dadin osasun-teknologietan elkarlan publiko-pribatuaren bidez. Horretarako, erreferentziatzeko eskualdeko laborategia osatuko da irtenbide berritzaileak garatu, egiaztatu eta zabaltzen dituzten talentua nahiz nagusi diren enpresak erakartzeko. Proiektuari esker, MODERNAk apustu egindako sektore guztien zehar-garapena lortuko da, telemedikuntza edo mediku-aparatuen arloak garatuz, esate baterako.



Barcina Lehendakaria MODERNA Fundazioaren patronatuko bilkuraren buru.

Hezkuntzaren sustraia ere lehenetsi da datorren ekitaldirako, eta elkarlanerako proiektuak sustatuko dira unibertsitateen, enpresen, Lanbide Heziketako zentroyen eta oinarrizko hezkuntzaren artean, hezkuntza-mundua enpresen errealitatera gerturatuz. Abian dagoen proiektuetako bat "Talentu gaztea, unibertsitatea eta enpresa" izenekoa da eta ikasleei aukera ematen die gradu-amaierako proiektua Nafarroako enpresekin elkarlanean egiteko.

Inbertsio berriak

Bestalde, aipatu behar da MODERNA planaren eskutik, 59 enpresa-proiektu Europako Inbertsio Bankuaren finantzaketa jaso dutela martxotik parte hartzen duten finantza-erakundeekin sinatutako 63 operazioen bidez. Ekonomia berdearen, osasun-ekonomiaren eta talentuaren ekonomiaren arlokoak dira eta [32 milioi euro inbertitu](#) dira. Horretarako, SODENAK 2,8 milioi euroko abalak eman ditu.